

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

398/2025 Erabakia, uztailaren 1ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako kontzejuak biziberritzeko planak idazteko dirulaguntzen deialdiari

Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuei buruzko martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauak xedatzen duenez, toki erakunde horiek herritarrek zuzenean parte hartzeko bide tradizionala dira, eta erabateko autonomia dute beren interesak eta beren oinarri diren taldeenak kudeatzeko, beren eskumen propioen bitartez.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen bigarren xedapen gehigarriak ezartzen duenez, foru erakundeek bakoitzak bere lurraldeko toki erakundeen berezitasun historikoak babestu eta bermatuko ditu.

Landa Ingurunearen Garapenaren ekainaren 30eko 7/2022 Legearen zioen azalpenak dioenez, landa garapenaren xedea honako hau da: landa ingurunearen garapen jasangarria, adimentsua eta integratzailea lortzea. Ondorioz, landa garapenak askotariko gaiak biltzen ditu bere baitan, eta inplikaturako lurralde eta funtzio eremu guztietan zeharkako neurriak eta politikak ezartzeko beharra dakar.

Horregatik, Arabako kontzejuak biziberritzeko planak idazteko finantza laguntza eman nahi da, aipaturako 7/2022 Legea garatzeko tresnekin bat etorritik. Era berean, biziberritze planetan jasotako jarduketak batzuk finantzatu ahal izango dira.

Horregatik guztiatik, Foru Gobernu Kontseiluaren 2025eko ekainaren 10eko 24/2025 Foru Dekretuaren bidez (2025eko ekainaren 18ko ALHAO, 68. zk.), dirulaguntza horien oinarri arautzaile orokorrak onetsi dira, Arabako kontzejuak biziberritzeko planak idazteko gauzako laguntzetarako.

Kontuan hartuta Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauaren 7.a) artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.3.a) artikuluan jasotako publikitate, gardentasun, lehia, objektibotasun, berdintasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioak bermatu behar direla dirulaguntza hauek eskuratu ahal izateko, deialdi hau aurkezten da, zeinak landako askotariko zerbitzuak ezarri, handitu eta hobetzea sustatzeko aipaturako gastuak finantzatzeko laguntzak arautuko baititu.

Deialdia idazteko, kontuan hartu da Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak ezarritako arau esparrua.

Era berean, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauaren 7.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, deialdian kontuan hartu da euskararen erabileraren alderdia, Arabako Foru Aldundiak onetsitako hizkuntza normalizazioko politikaren esparruan, eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen arabera.

Horren ondorioz, txostena ikusi eta Lurralde Oreekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea Arabako kontzejuak biziberritzeko planak idazteko gauzako laguntzetarako bideratutako dirulaguntzak emateko deialdiari.

Deialdia ebazpen honen I. eranskinean dago jasota.

Bigarrena. Aldatzea Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 28ko 872/2022 Erabakiaren bidez onetsi zen Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren eranskina, ebazpen honekin batera doan II. eranskinaren edukia haren barruan jasoz.

Hirugarrena. Erreserba bat egitea Arabako Foru Aldundiaren 2025erako aurrekontuko "10202. G/922100/65000101 Kontzejuentzako laguntza lerroa. Biziberritzea. Planak idaztea" aurrekontu partidaren kontura 374.400,00 euroko zenbatekoan.

Laugarrena. Gauzako laguntza denez, ez da erakunde onuradunen aldeko ordainketarik egongo. Horren ordeztu, dirulaguntzaren xede diren biziberritze planak emango dira. Egintza horren akta egin beharko da eta Toki Administrazioaren eta Erronka Demografikoaren Zerbitzuko pertsona batek sinatuko du, erakunde onuraduneko ordezkari batekin batera. Akta horretan, gainera, onuradunak gauzako dirulaguntza hori dela medio hartzen dituen konpromisoak eta laguntza horren zenbateko balioetsia jasoko dira.

Kontzejuak biziberritzeko plana jasotzen duenean justifikatuko dira dirulaguntzak.

Bosgarrena. Ebazpen hau behin betikoa da administrazio bidean, eta berorren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian administrazio egintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete pasatu baino lehen, uztailaren 13ko 29/1988 Legeak, jurisdikzio hori arautzen duenak, 46. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorriz. Hala ere, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio egintza eman duen organoari hilabeteko epean, administrazio egintza hau argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 1a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatua

LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria

JAVIER GORBEÑA GARCÍA

I. ERANSKINA

**Arabako kontzejuak biziberritzeko planak idazteko dirulaguntzak
norgehiagoka bidez emateko deialdia****Lehenengoa. Deialdiaren xedea**

Deialdi hau da Arabako kontzejuak biziberritzeko planak idazteko gauzako laguntzetarako.

Deialdi honen oinarri arautzaileak, zeinak Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 10eko 24/2025 Foru Dekretuaren bidez onetsi baitira, 2025eko ekainaren 18ko ALHAOn argitaratu ziren.

Planak idazteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Ingurunearen Garapenaren ekainaren 30eko 7/2022 Legea hartuko da kontuan, bai eta hura garatzeko araudia ere, hau da, Arabako lurralde garapeneko programa eta erreferentziako landa garapeneko eskualde programa.

Arabako kontzejuak biziberritzeko planak idazteko finantza laguntza eman nahi da, aipatutako 7/2022 Legea garatzeko tresnekin bat etorriz.

Bigarrena. Laguntzen onuradunak

Arabako kontzejuak izan daitezke dirulaguntza hauen onuradunak.

Ezingo dira erakunde onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluan aipatzen diren arau hausteengatik zehapena jaso dutenak, ez eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan edo Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan jasotako kasuetan daudenak ere.

Hirugarrena. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak eta gastuak

Arabako kontzejuak biziberritzeko plan estrategikoak idaztea diruz lagundu ahal izango da. Arabako Foru Aldundiak laguntza teknikoa kontratatuko du honako hauetarako:

- a) Kontzeju onuradunetako herritarren proposamenak jasotzea.
- b) Kontzejuen bileretara joatea, proposamenak hasieran garatzeko, eta bilera horiek zuzentzea.
- c) Planak idaztea eta entregatzea.

Laugarrena. Dirulaguntzen zenbatekoa

Deialdi honetan idatzi beharreko plan guztietarako gehieneko zuzkidura 374.400,00 eurokoa izango da. Diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren ehuneko 100eko dirulaguntza jaso dezake eskaera bakoitzak, eta gehenez ere 7.200,00 euro.

Gauzako dirulaguntzaren lanak Arabako Foru Aldundiaren 2025erako aurrekontuko "10202. G/922100/65000101 Kontzejuentzako laguntza lerroa. Biziberritzea. Planak idaztea" aurrekontu partidaren kontura kontratatuko dira, 374.400,00 euroko zenbatekoan.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea eta modua

Dirulaguntza eskaerak aurkezteko epea deialdi hau ALHAOn argitaratzen denean hasiko da, eta 2025eko abuztuaren 2an amaituko da.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan xedatutakoa betez, eskaerak berariazko izapiderearen bidez aurkeztu behar dira, egoitza elektronikoan:

https://egoitza.araba.eus/eu/-/planes_revitalizacion.

Seigarrena. Prozeduraren instrukzioa eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren Saileko Toki Administrazioaren eta Erronka Demografikoaren Zerbitzua da espedientea instruitzeko eskumena daukan organoa.

Laguntzak eskuratu nahi badira, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

- Gizarte Segurantzarekiko kuotak eta zerga betebeharrak egunean dituela adierazten duen eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena.
- Dirulaguntza publikoen onuradun izateko debekurik ez duela adierazten duen eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena.
- Auzo batzarraren erabakia, laguntza hauek eskatzen dituen.
- Udal ziurtagiria, honako hauek jasotzen dituen: 65 urtetik gorako pertsonen kopurua, 18 urtetik beherako pertsonen kopurua eta kontzejuen erroldatuta dauden eta AIZ duten pertsonen kopurua.
- Arabako Foru Aldundiko zerbitzu teknikoek edo juridikoek beharrezkotzat jotzen duten beste edozein dokumentazio.

Baldin eta aurkeztutako eskaerek ez badituzte betetzen adierazitako baldintzak, Lurralde Orekaren Zuzendaritzak interesdunei hamar eguneko epea emango die hutsa konpon dezaten edo nahitaezko agiriak aurkez ditzaten, eta adieraziko die hala egin ezean artxibatu egingo dela eskaera, ulertuko baita atzera egin dutela eskaeran.

Zazpigarrena. Dirulaguntza emateko prozedura. Balioespen irizpideak, dirulaguntzen banaketa eta zenbatekoa

Dirulaguntzak nori eman norgehiagoka bidez ebatziko da.

Dirulaguntzak emateko modua norgehiagoka prozedura denez, baldin eta aurrekontu esleipenarekin ezin badira aurkeztutako eskaera guztiak diruz hornitu (guztira 52 eskaera daude), honela jokatu da hautatzeko zer jarduera diruz lagunduko diren:

Dirulaguntza jaso dezakeen aurkeztutako eskaera bakoitzak puntuazio balio bat izango du, eta, era horretan, deialdi honetan eskatutako jarduketa bakoitza ordenatu ahal izango da, eta dirulaguntzak esleitzeko lehentasun ordena bati jarraituko zaio. Lehentasun ordena hori honako banaketa irizpide objektibo hauetan oinarrituko da, formula polinomiko honen arabera:

$$Y = 0,3 * ICPCm / ICPCi + 0,3 * TIi / TI m + 0,2 * TMi / TMm + 0,2 * TPMi / TPMm$$

Azalpena:

ICPC: Kontzejuaren per capita diru sarrerak, 2024ko ekitaldiko kontuetatik kenduta. Ekitaldi horretako konturik aurkeztu ez bada, termino polinomiko horren puntuazioa zero izango da.

TI: Kontzejuaren immigrazio tasa, Kontzejuan erroldatutako biztanleen artean AIZ duten biztanle erroldatu gisa definitua.

TM: Kontzejuan erroldatutako adin txikikoen ehunekoa, erroldatutako pertsona guztiekin alderatuta.

TPM: Kontzejuan erroldatutako 65 urtetik gorako ehunekoa, erroldatutako pertsona guztiekin alderatuta.

i azpi indizea kontzejuaren balioei dagokie, eta m azpi indizea, berriz, onartutako kontzejuen baliorik onenari. Kontzejuaren per capita diru sarreraren kasuan, azpi indizerik onena txikiena izango da, eta gainerako kasuetan handiena.

Biztanleriaren datuak 2024ko urtarrilaren 1ean hartuko dira.

Planen azken kostua 7.200,00 euro baino txikiagoa bada, kontzeju onuradunen kopurua handitu ahal izango da, deialdiaren guztizko ekonomikoa gainditu gabe.

Zortzigarrena. Ebazpena

Inbertsioei dagozkien laguntzak lortutako puntuen arabera banatuko dira, deialdi honetako saldoa agortu arte.

Balioespen batzorde batek aztertuko ditu eskaerak. Hauek osatuko dute batzordea:

- Lurralde Orekaren zuzendaria edo hark eskuordetzen duen pertsona.
- Toki Administrazioaren eta Erronka Demografikoaren Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetzen duen pertsona.
- Toki Finantzaketaren eta Administrazio Kudeaketaren Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetzen duen pertsona.
- Toki Administrazioaren eta Erronka Demografikoaren Zerbitzuko teknikari bat.

Balioespen batzordeak aurkeztutako eskaerak aztertuko ditu oinarrietan eta deialdian ezarritako betekizunen arabera, eta txostena egingo du, non zehaztuko baitu betekizunak zenbateraino bete diren, eta eskaeren arteko lehentasuna ezarriko du, aurreko apartatuan ezarritako irizpide eta baremoen arabera.

Eskatzaileei ez zaie entzunaldiko izapiderik egingo, zeren eta, ebazpena ematean, erakunde eskatzaileek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino ez baitira aintzat hartuko.

Eskaera bakoitzari dagozkion izapideak bete eta gero, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatuari aurkeztuko zaizkio, eta hark ebartziko ditu, dagokion foru aginduaren bidez, deialdia ALHAOn argitaratu eta, gehienez ere, lau hilabeteko epean. Epe horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

Administrazio bideari amaiera emango dion ebazpen horren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 8. artikuluan xedatutakoaren arabera, bi hilabeteko epean, jakinarazten den egunetik aurrera.

Zuzenean aurkaratu ezean, nahi izanez gero berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin.

Dirulaguntzak emateko ebazpenean jaso beharko da dirulaguntza zein kontzeju onuraduni eman zaien, eta espresuki adierazi beharko da gainerako eskaerak ezetsi egin direla. Ebazpenean, aldekoa bada, honako hauek adierazi beharko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, zer baldintzatan ematen den, lana egiteko epea eta adierazitako epean ez egitearen ondorioak.

Bat etorritik urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluen 1. apartatuaren b) letran xedatutakoarekin, prozeduraren ebazpenak ALHAOn argitaratuko dira eta argitalpenak jakinarazpen ondorioak izango ditu.

Kontzeju onuradunen batek uko egiten badio (uko hori gehienez ere bi hilabeteko epean egin beharko da, emakida jakinarazten denetik aurrera), dirulaguntza hurrengo eskatzaileei eman ahal izango zaie, aurretik adierazitako lehentasun hurrenkerari jarraituz, deialdiari azkenean esleitutako diru kopuruaren mugaraino.

Bederatzigarrena. Dirulaguntzaren muga

Ematen diren dirulaguntzen zenbatekoa ezingo da izan inola ere plana idaztearen kostua baino handiagoa, beste dirulaguntzekin eta diru sarrerekin baturik.

Hamargarrena. Jarduera gauzatzea.

Planen faseak honako hauek izango dira:

- a) Kontzejuetan bizi diren pertsonen ekarpenak jasotzea.
- b) Auzo batzarraren bilerak, proposamenak bateratzeko.
- c) Plana idaztea.
- d) Dirulaguntzaren xede diren biziberritzeko planak entregatzea.
- e) Hala badagokio, auzo batzarrak onestea.

Plana gauzatzeko epea Arabako Foru Aldundiak lizitatu duen laguntza teknikoko kontratuan ezarritakoa izango da.

Hamaikagarrena. Dirulaguntzak ordaintzea eta justifikatzea

Gauzako laguntza denez, ez da erakunde onuradunen aldeko ordainketarik egongo. Horren ordez, dirulaguntzaren xede diren biziberritze planak emango dira. Egintza horren akta egin beharko da eta Toki Administrazioaren eta Erronka Demografikoaren Zerbitzuko pertsona batek sinatuko du, erakunde onuraduneko ordezkari batekin batera. Akta horretan, gainera, onuradunak gauzako dirulaguntza hori dela medio hartzen dituen konpromisoak eta laguntza horren zenbateko balioetsia jasoko dira.

Kontzejuak biziberritzeko plana jasotzen duenean justifikatuko dira dirulaguntzak.

Hamabigarrena. Informazioa eman beharra

Dirulaguntza hartzen duten erakundeak behartuta egongo dira Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak eta Kontuen Epaitegiak edo beste organo eskudun batzuek eskatzen dieten informazio guztia ematera.

Hamahirugarrena. Dirulaguntza galtzea

Pertsona fisiko edo juridiko onuradunek galdu egin ahalko dituzte deialdi honetan emandako dirulaguntzak, aldez aurretik espedientea hasita, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauak eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak ezarritako kasuetan.

Espedientea dela eta dirulaguntza galduz gero, aipatutako xedapenetan ezarritako zehapen araubidea aplikatuko da.

Hamalagarrena. Babesletza

Dirulaguntza jaso duen jarduera dela eta egiten diren argitalpenetan, liburuxketan edo bestelako publizitate modu guztietan Arabako Foru Aldundiko Lurralde Oreakaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak dirulaguntza eman duela aipatu beharko da berariaz. Horrez gainera, generoaren ikuspegitik hizkuntza zuzen erabiltzen dela bermatu beharko da, eta informazioa emakume eta gizonei parekidetasunez iristeko mezu eta kanal egokiak erabiliko dira.

Hamabosgarrena. Publizitatea

Honako deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.

Hamaseigarrena. Errekurtsoak

Deialdi honi eta deialdiaren ondorio diren administrazio egintzei Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak xedatutako egoeretan eta eran egin ahal izango zaie aurka.

Hamazazpigarrena. Azken klausula

Dirulaguntzaren deialdi eta oinarri orokor hauetan xedatuta ez dagoen guztia Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauak eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak arautuko dute, baita aplikatzekoak diren gainerako arauak ere.

<p>Funtzio-Arloa: 1103</p> <p>Dirulaguntza leroa:</p> <p>Ardatz estrategikoa: Araba orekatua, polizentrikoa eta anitza</p> <p>Saila: Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamendua</p> <p>Aurrekontu partida: 10202 G/922100/65000101 Biziberritzeko Kontzejuentzako Laguntza Lerroa</p>	<p>Área funcional: 1103</p> <p>Línea de Subvención: Línea de ayudas para proyectos de revitalización</p> <p>Eje estratégico: Álava Equilibrada, Policéntrica y Diversa</p> <p>Departamento: Equilibrio Territorial y Ordenación del Territorio</p> <p>Partida presupuestaria: 10202 G/922100/65000101 Línea de Ayudas a Concejos Revitalización</p>								
<table border="1"> <thead> <tr> <th style="background-color: #ADD8E6;">2023</th> <th style="background-color: #ADD8E6;">2024</th> <th style="background-color: #ADD8E6;">2025</th> <th style="background-color: #ADD8E6;">GUZTIRA / TOTAL</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td style="text-align: center;">0,00</td> <td style="text-align: center;">0,00</td> <td style="text-align: center;">374.400,00</td> <td style="text-align: center;">374.400,00</td> </tr> </tbody> </table>	2023	2024	2025	GUZTIRA / TOTAL	0,00	0,00	374.400,00	374.400,00	<p>Objeto de Subvención: Financiación a los concejos alaveses para planes de revitalización. El apoyo financiero se estructurará en dos fases para cada entidad; en la primera de ellas se subvencionará la redacción de un plan estratégico de revitalización y en la segunda la ejecución de acciones contenidas en el plan.</p> <p>Persona beneficiaria: Concejos del Territorio Histórico de Álava</p> <p>Procedimiento de concesión: Concurrencia competitiva</p> <p>Líneas básicas de la subvención: El programa constará de dos líneas de subvención: a) Ayudas para la redacción de los planes estratégicos, las cuales son en especie. b) Apoyo financiero para la ejecución de acciones contenidas en los citados planes estratégicos. Las convocatorias podrán contener una o las dos líneas, en función del avance del programa.</p> <p>Cofinanciación:</p>
2023	2024	2025	GUZTIRA / TOTAL						
0,00	0,00	374.400,00	374.400,00						
<p>Dirulaguntzaren xedea: Arabako kontzejuak finantzatzea, biziberritze planak egin ditzaten. Finantza laguntza bi fasetan egituratuko da erakunde bakoitzarentzat; lehenengoan, biziberritze plan estrategiko bat idaztea diruz lagunduko da, eta, bigarrenean, planean jasotako ekintzak gauzatzea.</p> <p>Onuraduna: Arabako Lurralde Historikoko kontzejuak</p> <p>Emateko prozedura: Norgehiagokako prozedura</p> <p>Dirulaguntzaren oinarriko leroak: Programak bi dirulaguntza lero izango ditu: a) Plan estrategikoak idazteko laguntzak, zeinak gauzak dira. b) Plan estrategiko horietan jasotako ekintzak gauzatzeko finantza laguntza ematea. Deialdiek leiro bat edo bi izan ditzakete, programaren aurrerapenaren arabera.</p> <p>Baterako finantzaketa:</p>	<p>Objeto de Subvención: Financiación a los concejos alaveses para planes de revitalización. El apoyo financiero se estructurará en dos fases para cada entidad; en la primera de ellas se subvencionará la redacción de un plan estratégico de revitalización y en la segunda la ejecución de acciones contenidas en el plan.</p> <p>Persona beneficiaria: Concejos del Territorio Histórico de Álava</p> <p>Procedimiento de concesión: Concurrencia competitiva</p> <p>Líneas básicas de la subvención: El programa constará de dos líneas de subvención: a) Ayudas para la redacción de los planes estratégicos, las cuales son en especie. b) Apoyo financiero para la ejecución de acciones contenidas en los citados planes estratégicos. Las convocatorias podrán contener una o las dos líneas, en función del avance del programa.</p> <p>Cofinanciación:</p>								

Jarraipen prozedura eta adierazleak:

Dirulaguntzaren lehen lerroko adierazlea: diruz lagundutako plan estrategikoen kopurua. Dirulaguntzaren bigarren lerroko adierazlea: plan estrategikoeetan jasota dauden gauzatutako ekintzen kopurua.

Régimen de seguimiento e indicadores:

Indicador para la primera línea de subvención: número de planes estratégicos subvencionados. Indicador para la segunda línea de subvención: número de acciones contenidas en los planes estratégicos llevadas a cabo.